



Auzitegi Nazionaleko fiskalak 'Egunkaria auzia' artxibatzeke eskatu du

TOLOSA ▶ Martxelo Otamendi eta beste 6 auzipetuen aurkako frogak «oso ahulak» zirela argudiatu du

EPAIKETA ▶ AVT eta Dignidad y Justiciako akusazio partikularrek auziarekin jarraitzea eskatu dute ▶ 2

TOLOSA ▶

Udaberri eta Galiziako Breogan taldeak bihar Beotibarren

Bi herrialdeetako kultura uztartzea du helburu ekimenak ▶ 6



HITZA

AITZPEA GOENAGA ▶ AKTOREA ETA ZUZENDARIA

«Ordu eta erdiz primeran pasatzeko aukera ematen du antzezlanak»

Donostiarrak '¡Ama, quiero ser lehendakari!' aurkeztuko du gaur ▶ 7

LEITZA ▶

Leitza, Areso eta Goizuetako gazteen arteko topaketak

Bihar Leitzan egun osoan zehar ▶ 6

IBARRA ▶

Etzi irekiko ditu atek elkartasunaren Merkatu Txikiak

Ibarratik Misio Taldeak antolatuta, parrokiko lokalean izango da ▶ 5

ZAS
soinu
ikastaroa
Informatika musikala
(Cubase)
Grabaketa eta masterizazio
profesionala
P.A. eta monitoreak
Eta abar
943 65 35 35
www.sointek.net

SORGINAK
Aventura
JOLAS BERRIA
Euskal Mitologia
Kooperatiboa
Dibertigarria
urtxintxa
www.urtxintxa.net - 943278088

'EGUNKARIA AUZIA' ▶

ERREDAKZIOA

Egunkaria auzia-ren zazpi auzipetuen aurkako frogak artxibatzea eskatu du Miguel Angel Carballo Espainiako Auzitegi Nazionalako fiskalak, atzo plazaratu zuen kalifikazio txostean. Bertan frogak «oso ahulak» direla argudiatu du fiskalak, hau da, *Egunkaria*-k eta auzipetuek ETArekin lotura zutela frogatzerik ez dagoela esan du. Zazpi auzipetuen artean egun *Berria* egunkariko zuzendaria den Martxelo Otamendi tolosarra dago.

Egunkaria auzia-n oro har, eta zehazki, zazpi auzipetuen kontra aurkeztu diren frogak «oso ahulak» direla iritzi dio, beraz, Carballo auziko fiskalak, eta, ondorioz, auzia artxibatzeko eskatu du. Carballoren arabera, «ezin da frogatu *Egunkaria*-k zein auzipetuek ETArekin lotura zutenik», ez eta legezko elkarteak osatzen zutenik ere. Fiskalak gaineratu du 1993an hasi zela susmo horren inguruko ikerketa, eta gaur arte ez dela froga nahikorik bildu. Adierazi du froga horietatik ondoriozta daitekeela *Egunkaria*-ren inguruko interesa zuela ETak, baina ez besterik.

Egunkaria auzia gidatu duen Juan del Olmo epaileak, berriz, zazpi auzipetuei akusazio horixe egiten zien: ETaren menara aritzea.

Iñaki Uria *Egunkaria*-ko kontseilari ordezkaria, Joan Mari Torrealda administrazio kontseiluko presidentea, Txema Auzmendi administrazio kontseiluko idazkaria, Peio Zubiria zuzendari izana, Xabier Oleaga zuzendariorde izana eta Xabier Alegria dira, Martxelo Otamendirekin batera, beste sei auzipetuek.

'Egunkaria auzia' artxibatzeko eskatu du Espainiako Auzitegi Nazionalako fiskalak

Zazpi auzipetuen aurkako frogak «oso ahulak» direla-eta hartu du erabakia Miguel Angel Carballok; Martxelo Otamendi tolosarra dago auzipetuen artean



Martin Ugalde Kultur parkean iaz epaiketaren aurka eginiko konzentrazioa. GARI BERAASALUZE

Fiskaltzak artxibatzea eskatu arren, oraindik ere litekeena da epaiketa egitea. Izan ere, AVT eta Dignidad y Justicia ordezkatzan dituzten akusazio

partikularrek auziarekin aurkera jarraitzeko eskatuko dute, eta eskaera hori aintzat har dezake epaileak.

Egunkaria 2003ko otsailean

itxi zuen Guardia Zibilak Espainiako Auzitegi Nazionalako Juan del Olmo epailearen aginduz. Hamar lagun atxilotu zituzten operazio hartan —haien

EPAIKETA

Litekeena da epaiketa egitea AVT eta Dignidad y Justiciako akusazio partikularrek auziarekin jarraitzea eskatu baitute

artean, Martxelo Otamendi—. Haietako hainbatek inkomunikatuta eduki zituzten bitartean torturatu egin zituztela salatzen.

Eskualdeko erantzuna

Martxelo Otamendiren atxilotetak eta *Egunkaria*-ren ixteak eskualdea mugiarazi zuten 2003ko otsaila hartan eta Tolosaldeko euskalgintzako talde ugari kalera atera ziren. Eskualdean konzentrazio eta manifestazio asko egin zituzten eta euskaltzaleak kalera atera ziren herri gehienetan «euskalgintzaren aurkako erasoak» salatuz.

Bost egunez Soto del Real (Madrid) espetxean atxiloturik egon ostean, Martxelo Otamendik tratatu txarrak salatzen zituen eta lankideek *Egunero* kalartzea eskertu zuen aske utzi zutenean.

ASTEASU ▶ MENDI ASTEA

Hastapeneko orientazio proba antolatu dute bihar goizerako, aurtengo Mendi Astearen berritasuna

ERREDAKZIOA

Asteasuko aurtengo Mendi Astearen berritasuna bihar goizerrako antolatu dute: hastapeneko orientazio proba. Antolatzaileek Irungo Mendizaleak elkartearen laguntza izan dute frogatzen. «Hastapeneko frogak denez, lehiakortasuna alde batera utzi eta kirol berri bat ezagutzeko prestatutako saioa izango da», diote.

Parte-hartzea, beraz, guztiz irekia da. Gaztea ala heldua

izan, bakarrik ala taldeka, korrika ala oinez, aukera ezberdinak daude orientazio proban aritzeko. Gaztetxoentzako bereziki interesgarri izan daiteke, antolatzaileek zehazten dutenez, «altxorren bila jokoaren antzeko proba baita». Izan ere, orientazio probaren helburua maparen eta iparrorratzaren laguntzarekin ibilbide bat burutzeko da. Mapan borobilekin zehaztuta dauden puntuak, lasterketa eremuan baliza bidez seinatuta daude eta ho-

rietatik pasa behar dute ibilbidea egiteko. Hain zuzen, parte-hartzaileek baliza guztietatik pasa beharko dute hurrenez hurren, norberak hobeto deritzaon ibilbidea jarraituz.

Maila eta ibilbide ezberdinak daude zehaztuta. Gaztetxoentzako mailakoek (16 urtera arte) B ibilbidea egin beharko dute, hiru kilometro ingurukoa eta guztira 20 baliza dituen. Helduak (17 urtetik gora) eta taldeka egiten dutenek, A ibilbidea egin beharko dute, bost ki-

lometro ingurukoa eta 15 balizarekin.

Parte hartu nahi dutenek izena emateko aukera izango dute bihar 09:30etik aurrera, udal-txearen azpian. 10:00etan antolatzaileek azalpen labur batzuk emango dituzte probari buruz. 10 minutu geroago mapak banatuko dituzte (1:5.000 eskalan) eta 10:15ean irteera emango dute. Parte-hartzaile guztiak opariak jasoko dituzte eta kirol materialeko zozketan parte hartuko dute.

IRURA ▶

Xare jokalariek animatzeko Miarritzerako autobusa

ERREDAKZIOA

Irurako Udalak aurtengo eguberrietako egitarau oparoa. Hain zuzen, lehenengo ekitaldia bihar bertan egingo dute. Autobusa antolatu du Miarritzerako jokalariak animatzeko xare torneooko finalean. Autobusa 08:00etan abiatuko da Trinetetik.

ALEGIA ► KULTURA

Ahotsa bidelagun bihurtzen denekoa

Irati eta Ekaitz Goikoetxea beasaindarrak eta Iñaki Mezquita alegiarrek 'Ahots Bidaztiak' emanaldia eskainiko dute gaur



Irati Goikoetxea, Ekaitz Goikoetxea eta Iñaki Mezquita. JOSE LUIS ELORZA

IZASKUN BERAZA (Berria)

Ekaitz eta Irati Goikoetxeak txiki-txikitik izan dute idazteko zaletasuna. Anai-arreba beasaindarrak betidanik idatzi dituzte bertsoak, olerkiak eta ipuinak. Azken bi urteetan idatziko lan horiek guztiak plaza-ratu nahian aritu dira. Ahotsa jarri nahi izan diete landutako literatura genero guztiei. Ideia bat izan dute buruan jira eta buelta, gauzatzea lortu duten arte. *Ahots Bidaztiak* du izena esku artean duten proiektuak.

Joan den abuztuan abiatu zuten, eta hurrengo emanaldia euren herrian eskainiko dute, Beasaingo Usurbe aretoan gaur, «saio koloretsua» ikusi ahal izango da. Izan ere, hasieratik zerbait berezia egitea izan da Irati eta Ekaitzen asmoa: «Badaude poesia erreztal-diak, badaude bertso saioak eta badaude ipuin kontaketa-k. Guk saio batean horiek eta beste hainbat genero nahastu nahi genituen, eta musikak lagunduta eskaintzeko aukerarik balez, askoz hobea», azaldu du Irati Goikoetxeak.

Doinuz lagundu nahi zituzten, beraz, Goikoetxea nebarrekek urte askotan egindako lanak. Askotariko literatur generoak musikaren igurtziaz taularatzea da euren asmoa. Iratik gitarra jotzen eginak zituena hainbat saio, baina aspaldian utzia zuen hori. Horrexegatik jo zuten Iñaki Mezquita alegiarrarengana, aurretik

ezaguna zuten gitarra jotzailearengana. Hasiera batean, ikasitakoa berreskuratzen laguntzeko eskatu zion Mezquitari, baina kontuak beste bide bat hartu zuen.

«Zertarako berreskuratu nahi nuen galdetu zidan, eta buruan genuen proiektua azaldu nion zertxobait. Askok gustatu zitzaion ideia eta berak ekimenen parte hartzea proposatu zigun orduan». Goikoetxeatarrek pozez jaso zuten berria. Izan ere, Iñaki Mezquita profesional handia dela uste du Irati Goikoetxeak. «Urte askotan aritu da Mezquita bakar-lari handiekin lanean, Urkorekin, Iñaki Eizmendirekin, Ima-

nolekin...». Gogotsu ekin zion musikariak ere Goikoetxea anai-arreben testuak musikatzeari.

Proiektu koloretsua eta parte-hartzailea da *Ahots Bidaztiak*. Lanaren emaitza ezberdina izatea da hirukote honen helburuetako bat. «Saio koloretsua, ezberdina, askotarikoa, mota guztietako gaiak jorratzen dituen eta parte-hartzailea» egin nahi dute. Horretarako, besteak beste, garrantzitsua da idatzietan askotariko gaiak jorratzen direla nabarmentzea. «Ahotsa jarri nahi diogu euskarari, euskarak kezkatzen gaituelako», azaldu digu senide zaharrenak. «Aho-

tsa jarri nahi diegu etorkinei, ahotsa jarri nahi diegu txarrei, ahotsa jarri nahi diegu ingurumenari...», gaineratu du. Azken finean, «kezkatzen gaituzten gaiak buruz jardungo dugu. Baina baita gai entretengarriak buruz ere. Bizitzari jarriko diogu ahotsa, baita heriotzari ere».

Beharbada, gehien arduratzuten dituen emanaldi parte-hartzaileak egitea da. Abuztuaren 17an egin zuten estreinaldia, Lazkao Maizpide eskalategian. Bertako ikasleek hartu zuten parte eta saio osoan hamabost bat lagun taularatu ziren. «Tokian tokiko jendeak parte hartzea da gure erronketako bat», azaldu du Irati Goikoetxeak. Beasainen du hirukote honen bidaia hurrengo geltokia, eta han ere herriko jendea taula gainean jarri nahi dute.

Horretarako, azken hilabeteetan ate joka aritu da Ekaitz. Lan gehigarria bada ere gustura egiten den lana dela azaldu digu haren arreba, eta gainera fruituak eman dituen. Izan ere, atez ate aritu ostean Beasaingo jende ugari izango dute lagun gaur, 22:00etatik aurrera. «Beasaingo Musika Eskola-ko ikasleek eta Koldo Iparragire trikiti eskolakoak gurekin igoko dira taulara. Gala ballet eskola ere bada Beasainen, eta koreografia batekin lagunduko diote nik erreztatuko dudana olerki bati, eta herriko beste zenbait pertsonak ere antzerki txiki batean hartuko dute parte. Gainera, Pello Irizar piano jolea ere gurekin izango da agertokian. Azken batean, tokian tokiko pertsonen parte hartzea nahi dugun», azaldu du Iratik.

Goikoetxea anai-arrebak eta Iñaki Mezquita gitarra jotzailea gustura daude beasaindarren erantzunarekin. «Eskertzekoa da haien jarrera. Jendeari

PARTE-HARTZEA

Lekuan lekuko jendeak parte hartzea da duten erronketako bat, eta horretara gonbidatzen dituzte herritarrak

proiektua gustatu zaio eta ez du inolako trabarik jarri parte hartzeko».

Gazteengana hurbiltzen

Beasaingo herriari berari ere egingo diote oparia. «Gure asmoa da, era berean, joaten garen lekuko berezitasunen bati omenaldia egitea». Lazkao saioan, nola ez, Lazkao Txiki bertsolariari egin zioten omenaldia, haren hainbat kopia ekitaldian txertatuz. Beasainen gauza bera egin asmo dute. «Beasainen Murumendi izeneko mendia dugu, eta bertako Mari pertsonariari buruzko istorioa ere bai. Ekaitzek antzerki modura moldatu du eta Mariren istorioa antzeztuko dugu oraingoan», azaldu du Iratik.

Aurrera begira proiektua sakontzeko asmotan ari dira. Besteak beste, Irati Goikoetxeak esan digunez, gazteengana hurbiltzea da haien asmoa eta, horretarako, eskolatan hitzaldiak ematekotan dabiltza. «Jende gaztea literaturara eta kultur gintzara hurbiltzea, horixe da gure asmoa». Berezik DBHko eta batxilergoko ikasleengana joko dute. «Horrelako kultur ekintzetara hurbilduz euskaraz gozatzea posible dela erakutsi nahi diegu». Euren saiora joateko gonbita egingo diete, baita kultur gintzan parte hartzeko gonbita ere. «Esango diegu eurek ere aukera izan dezaketela kultur gintzaren munduan sartzeko eta mundu polita dela oso».

ALEGIA ► FUTBOLA



Intxurre Eibar taldearekin, Eibarren

Nerea Urbizu ► Eibarren kontra jokatu zuten Intxurreko lurrel-dekakoei hilaren 6an. Ez zuten lpuan jokatzetik izan zelaia egoera txarrean zegoelako, baina Eibar taldeak Alegria jokatzera etorriko dela zin egin zuen. Talde profesionalaren aurka 9-1 galdu bazuten ere, lagun giroan «oso ondo» igaro eta pasa zutela aitortu zuten Alegiko mutilek. HITZA

EHNA ▶

Udalbiltza: «EHNA egin naziotasun eskubidea aldarrikatzeko»

Naziotasun Eskubidearen Eguna deitu du bihar eta etzirako; eskualdeko hainbat herritan EHNA tramitatu ahalko da

ERREDAKZIOA

Udalbiltza ekimen ezberdinak ari da gauzatzen egunotan Euskal Herriaren naziotasuna aldarrikatzeko. *Nazio bat gare-lako, egin Euskal Herria!* lelopean bihar eta etziko egunak Naziotasun Eskubidearen Eguna izendatu eta herritarrei EHNA egiteko deia zabaltzen die. «Euskal herritarren eskubideak eta Euskal Herriaren beraren eskubideak aitortzeko, ez dugu urratzeak salatu solilik egingo, eskubideak egunero praktikoki erabili ere bai-zik, Udalbiltzak sortutako tresnaz, EHNAz», azaldu du erakundeak prentsa ohar batean. Tolosaldeko hainbat herritan izango da aukera bai bihar eta bai etzi EHNA egiteko.



EHNA egiteko eta erabiltzeko deia egiten du Udalbiltzak. HITZA

Euskal Herriaren eta euskal herritarren eskubideak «ukatu» egiten direla deritzo Udalbiltzak. «Gure naziotasuna es-

kubidea da, baina eskuratutako egin behar dugu eta, horretarako Naziotasunerako Eskubidearen Eguna antolatutako dugu

TRAMITAZIOAK ▶

Tolosaldean bihar eta etzi EHNA egiteko aukera dago.

ABENDUAK 16, BIHAR

Aduna. Udaletxean, 11:00etatik 13:00etara.
Alegia. Udaletxean, 11:00etatik 13:00etara.
Amasa-Villabona. Udaletxean, 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 18:00etara.
Amasako kultur etxean 11:00etatik 14:00etara.
Anoeta. Udaletxean, 11:00etatik 13:00etara.
Belauntza. Udaletxean, 11:00etatik 14:00etara.
Berrobi. Udaletxean, 16:00etatik 20:00etara.
Gaztelu. Udaletxean, 12:00etatik 14:00etara.
Ibarra. Udaletxean, 10:30etik 13:30era.
Ikaztegieta. Udaletxean, 11:00etatik 13:00etara.

Larraul. Udaletxean, 11:00etatik 13:00etara.
Leaburu. Udaletxean, 12:00etatik 14:00etara.
Lizartza. Udaletxean, 11:00etatik 14:00etara.
Tolosa. Udaletxean, 10:00etatik 14:00etara.
Zizurkil. Iriarte kultur etxean, 10:30etik 13:30era.

ABENDUAK 17, ETZI

Abaltzisketa. Udaletxean, 11:00etatik 13:00etara.
Amasa-Villabona. Amasako kultur etxean, 11:00etatik 14:00etara.
Amezketeta. Udaletxean, 11:00etatik 13:00etara.
Asteasu. Udaletxean, 11:00etatik 13:00etara.
Elduain. Udaletxean, 11:00etatik 14:00etara.
Orexa. Udaletxean, 12:00etatik 14:00etara.

berriro». Egun hori «nazio izateko gure eskubidea aldarrikatzeko erabiliko dugu, nazioarteko oihartzuna lortzeko», eta eskubide hori urratu egiten den bitartean Naziotasunerako Eskubidearen Eguna antolatzen jarraituko dutela azaltzen dute, hots, «Euskal Herria nazioa dela onartu arte».

Eskubideen ukaketa horiei aurre egiteko, «egunero erabili eta islatu dezakegu gure eskubidea, baina egun tresna bakarra dugu horretarako», dio erakundeak. «Alde horretatik, EHNA txartela baino gehiago da; naziotasun inposatu bati aurre egiteko gure eskubidearen erabilera praktikoa da».

abenduak 15-16-17 zizurkil

KIROL asteburua

2006-12-15:
"ZIZURKILDARRAK G-II"an
19:30ean Iriarte etxean
Ondoren, ZIZURKILGO
KIROLARIEI OMENALDIA.

2006-12-16:
HAMABI ORDUZ KIROLEAN:
12:00etan:
Herri Kirolak Zizurkil Goian:
GOMA GAINKO 4X4 SOKATIRA
(340 kiloko kategorian).
Taldeak:
AMAIUR, GIRIZIA eta IZASKUN.
Aizkolariak: NAZABAL-OTAEGI
eta LOPEZ-PENAGARIKANO.

15:30-17:30: Orientazio ibilbidea
haur eta gurasoentzat.
18:00etan:
Merienda eta opari banaketa.
22:30ean:
ZIZURKILGO X. GAU KROSA.

2006-12-17:
12:30ean: PILOTA PARTIDAK
Intxaur Frontoian:
NAGORE vs. ANTIXIA.
ALUSTIZA-ERRANDONEA vs. ARIZNABARRETA-ARRETXE.


gau krosa herri kirolak

egunero opari bat...

alabari, lagunari, izebari, aitonari...

zuk nahi duzunari

oparitu HITZA-ren harpidetza



Eskaera egiteko deitu

902 82 02 01 telefono zenbakira

IBARRA ▶

Gaur 21:00etan
bertso afaria
Gaztetxean

Amets Arzallus, Xabier Silveira eta Jokin Uranga bertsolarien eskutik bertso afaria izango da gaur iluntzeko bederatzietan Gaztetxean. Txartelak bertan izango dira salgai 30 euroren truke.

IBARRA ▶

Euskara eta
etorkinen
inguruko hitzaldia

Mondragon Unibertsitateko irakasle den Amelia Barquin Ibarrako Kultur Etxean izango da gaur 19:00etan *Euskara eta etorkinen hizkuntza integrazioa* lelopean Jatorkine antolaturiko hitzaldia emateko.

BALIARRAIN ▶

Gabon kanten
entsegua eta
batzarra

Bihar 21:00etan gabon egunean kantatuko diren abes-tien entseguak izango dira Baliarraingo kultur gelan. Ondoren, Jai Batzordeak deituriko bilera egingo du urteko balantzea eta batzordeko aldaketak aztertzeke. Antolakuntzak parte-hartze zabalerako deia egin du.

IBARRA ▶ GIZARTEA

Elkartasunezko Merkatu
Txikiak etzi irekiko ditu ateak

Ibarratik Misio Taldeak antolaturiko merkaturia hil honen 24era arte egongo da zabalik parrokoiko lekalean, egunero goiz eta arratsaldez



Txiribitu aisialdi taldeko haurrek eginiko kartela. M.SOROA



Bigarren eskuko gauzak ezezik gauza berriak ere aurki daitezke. M.S.

MADDI SOROA

Etzi hasi eta hilaren 24era arte Ibarratik Misio Taldeak antolaturiko Merkatu Txikia zabalik izango da Ibarrako parrokoiko lekalean. Ordutegiari dagokionez, astelehenetik larunbatera 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara izango da Merkatu Txikiak salgaia erosteko aukera eta igandeen 10:00etatik 14:00etara.

Bosgarren urtea beteko du aurtengoan Ibarrako Misio Taldearen Merkatu Txikiak. 2001ean bertako partaide diren Xabier Ayerza eta Maria Angeles Ganzarain Indiako bi-daiatik bueltan zirela merkatu txikia egiteko ideia otu zitzaion, «Tolosako merkatu txikiak zuen arrakasta ikusita guk ere gauza bera egitea pentsatu genuen». Esan eta egin. Harrezkero gauzak bildu eta saltzen dirau Ibarrako Merkatu Txikiak irabaziak hirugarren mundura bidaltzeko. Ez nola nahi gainera, Ayerzak eta Ganzarainek azaldu bezala «oso harrera ona du merkatuak, bai gauzak ekartzeko unean baita saltzerakoan ere».

Parrokoiko lekalean denetik aurki daitezke, jostailuak, arropa, cd-ak, liburuak, eskola materiala edota etxerako gauzak, besteak beste. Prezioei dagokionez, berriz, 50 zentimotatik aurrerako prezioak dituzte salgaiek. Aipatu, jendeak bertan utzitako gauzetaz gain Bombay, Eritrea, Ekuador eta Honduraseko produktuak erosteko aukera ere izango duela, hala nola, poltsak edota pitxiak.

Gogoratu, bertan irabazitako dirua Hirugarren Munduko lau herrialdetan martxan dauden proiektuak bultzatzeko izango dela. Ekuadorreko Santa Rosa herrian nekazaritza eskola hobe eta erein ahal izateko, lursaila landuko dute. Eritreako Hal-Hale herrian, berriz, elikadura proiektua bultzatuko dute, elikagai beharra baitago.

Bombay-en eta Hondurasko Suyapa herrian etxebizitza arazoa da nagusi eta beraz, herrialde horietan etxebizitzak egiteko bideratuko dute Merkatu Txikiaren bitartez eskuraturiko dirua.

Gogoratu, inork gauzak eman nahiko balitu, oraindik ere badela horretarako aukera.

Ibarrako Udala

IRAGARKIA

OBRA-ENKANTEARI BURUZKO IRAGARKIA

1. Erakunde eskizalea, Ibarako Udala
2. Kontratuaren xedea: "Guri auzoko sarbide lanak (lehen fasea)"
3. Gauzatzeko epea: 6 hilabete.
4. Itapidea: Presazkoa
5. Jarduera: Irakia
6. Eskizaleko modua: Lehiaketa
7. Enkantearen oinarriko aurrekontua: 307.605,96 euro.
8. Behin-Behineko berrak: 6.152,12 euro
9. Behin betiko berrak: Adjudikazio prezioaren %4
10. Eskaintzak edo esku hartzeko eskaerak aurkezteko eta eskaintzak zabalteko Aurrezteko azken epea: Iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik zabalteko hasita, 13 natural. Proposamenak Ibarako Udai Enregistratzen aurkeztuko dira, astelehenetik ostiralean, 09:00etatik 14:00etara.

Ibarren, 2006ko abenduaren 13an, • ALKATEA,

**jantzi
hitza
ren
jertseak**

HITZAren egoitzetan salgai

Gorriti liburudenda

Prensa eta aldizkariak

Belate pasealekua, 1 • Tolosa • Tel.: 943 67 60 53

hitza Harpidedunen txokoa

HITZAko harpidedunen artean Nobelaren 20 ale zozketatuko ditugu!

Parte hartzeko, deitu zenbaki honetara: **943 65 56 95**

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea

Joxe Mari Iturralde idazlearen "Hyde Park-eko hizlaria"

Eguberri honetan oparitu eta irakurtzeko nobela

Londresera joan ziren 1978ko uda hartan. Euskal Herrian jendea isilik ibiltzen zen sasoiari, Hyde Parkean adineko gizon bat euskaraz hitz egiten aurkitu zuten gerra galduaz. Jadanik ez dute Wight islan egon ziren oroitzen, baina joatekotan ibili zirela bai....

Joseba Sarrionandia

LEITZA ▶ GIZARTEA

Gazte topaketak elkarlanerako bide

«Leitza, Areso eta Goizuetako gazte eta gaztetxeen arteko harremana bultzatzea» du xede bihar egingo duten jaialdiak

ESTI EZEIZA

Bihar, hirugarren aldiz, Leitza, Areso eta Goizuetako herrien arteko Gazte Topaketak ospatuko dituzte. Hiru herrien arteko harremana indartzeko asmoarekin sortu zen jaialdi hau, eta urte urte txandakaturaz joaten dira. Joan den urtean Goizuetan egin zen, eta aurrekoan berriz, Leitza. Jaia ez ezik, erreklamazioak egiteko bide ere bada izango dute biharkoa.

Urtean zehar, «lehian» ari-tzen badira ere hiru herri hauek, kolaborazio esperientzia honek arrakasta handia izan du. Honenbestez, *Animatu zatzetxea denak, juergaxka pol-litte juergaxka pol-litte eukikou ta/lelopean egiten dute gonbi-dapena herrietako gazteek, ekitaldietan parte hartzeko.*

Egitasmo hau aurrera eramatearen beste arrazoietako bat, Gaztetxe eta Gazte Asan-bladen arteko elkartasuna sor-

etzea da. Batez ere, jaialdiaren asmoa da, elkarri indarra ematea, esperientziak trukatzeko, lana batera egitea, eta gazteekiko ezagutza lantzea. «Askotan nahiz eta ondoko herriko gazteak izan, ez dago elkar ezagutzarik eta laguntasunik gure artean» diote antolatzaileek.

Gazteen ustetan, «esperientzia martxan jarri zenetik argi ikusi da, lehen herrien artean zegoen norgehiagoka, egun

EGITARAUA ▶

ABENDUAK 16, BIHAR

11:00. Hamaiketako eta gaztekeen aurkezpena.

Ondoren. Kulkurtu purea jokia.

14:30. Bertso bazkaria.

Ondoren. Jokoak.

Segidan. Manifa animatua: Herri bat gaztetxe bat!

20:30. Trikipoteoa.

24:00. Kontzertua: Txapel, Zartakada eta Los Ratones Kolorados.

sumindura zintzo eta sano, nahiz beharrezkoa bihurtu dela». Batez ere, umorea eta jai giroa zabaldu da bi herrien artean.

Bestalde, kinto afari eta bazkari ugari ere izango dira biharkoan, hala, goiz-goizetik festa giroa izango da herri guztian zehar.

ALEGIA ▶

Betagarri talde arabarra gaur Gaztetxean izango da

Zahagi sagardoarekin hasiko dute gaua, eta kontzertua eta gero, Aritz Sound System

NEREA URBIZU

Alegiko Gaztetxearen XIX. urteurrenaren baitan kontzertu eta ekitaldi ezberdinak antolatuko dituzte Gaztetxeok. Besteen artean, gaurko Betagarriren kontzertua da azpimarratzekoa.

Talde arabarrak *Zuzenena* diskoa kaleratu berri du: honetan, betiko kantak entzun daitezke. Beraz, ez du abesti berririk, eskainiko, hasiera batean. Kanta ezagunekin gozatzeko aukera, beraz, Alegiko Gaztetxean.

Ez da, baina, hori bakarrik egongo Gaztetxean. Giroa berotzen hasteko 21:00etan zahagi sagardoa antolatuko dute. Jarraian, 23:00ak aldera Betagarri taldea bera, eta bukatzeko Aritz Sound System-en saioa: musikaz blai izango dira Gaztetxera hurbiltzen diren guztiak.

Aritz Sound System ariko da musika aukeraketan. Euskal Herrian oraindik ezagunak diren doinu kanpotarrak entzun ahal izango dira bertan; sustrai beltzak dituzten doinuak, hala nola, reggae, rap, funk, soul, afro-brasilardar doinuak, eta abar. Musika jartzeaz gain, irrati esataria da Aritz.

Hurrengo egunetan

Hurrengo ekitaldia asteazkenean izango da, zine-klubarekin. *Laburmetraiak* ikusi ahal izango da 21:30ean. Ostiralerako, berriz, zahagi sagardoa eta futbolin txapelketa antolatuko dituzte.

TOLOSA ▶ KULTURA

Udaberri eta Galiziako Breogan dantza taldeen saioa izango da bihar

Bi herrialdeetako folklorea eta kultura uztartzea izango da helburu Beotibarren

E. EZEIZA

Udaberri dantza taldeak Galiziako Breoganekin batera emanaldi berezi bat eskainiko du bihar, Beotibar pilotalekuan. Galiziako eta Euskal Herriko folklorea eta kultura uztartzea izango da saio honen helburua. Bestalde, Udaberrikoen esanetan, «Tolosaldean gutxi-tan ikusi ahal izan da Galiziako dantza izen saio bat». Biek ere, herrialde bakoitzeko dantza tradizionalak interpretatzen dituzte.

Orain arte, ekitaldi hau Babarun Astearen baitan egin izan

ohi bada ere, antolatzaileek, aurten arazoak izan dituzte taldeak bilatzeko garaian, eta atzeratu egin behar izan dute emanaldia. Hori dela eta, azkenik, etzi 20:30etik aurrera izango da.

Breogan dantza eskolak Brens hirian du egoitza, eta 60 ikasle osatua dago. Eskola honen helburu nagusia kulturala bada ere, xede hezitzailea ere badu. Dantzaren bitartez Galiziako kultura zabaldu nahi dute adin guztietako ikaslearen artean. 18 urte dituen dantza talde honek hainbat sari eskuratu ditu dagoeneko, eta es-



Galiziako Breogan taldearen emanaldi bat. HITZA

kualde mailan erreferente bilakatu dira.

Mende erdia lanean

Datorren urtean Udaberri dantza taldeak berrogeita hamar garren urteurrena ospatuko

du. Hori dela eta, urte guztian zehar hainbat ekitaldi egingo dituzte, besteak beste, Benito Lertxundiren kontzertua, erromeriak... Hala, larunbat honetako saioa, ospakizun hauen aurrerapen gisa aurkeztu dute Udaberrikoek.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldekohitza.nfo



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

GIZARTEA ▶

Harizpen hasi dira gabonsarien banaketarekin

Harizpe Tolosako jubilatuen eta pentsiodunen elkarteak bertako bezeroei jakinarazten die gabonsarien banaketarekin hasi direla. Egutero, hilaren 22ra arte egingo dute banaketa, eta epe hori gaindituta, ez dute gehiago banatuko.

GASTRONOMIA ▶

Jardunaldi Gastronomikoa gaurtik

La Jara Extremadurako zenitroak Jardunaldi Gastronomikoa antolatatu du. Ekitaldiak gaur hasi eta igandera arte gauzatuko dira, eta besteak beste, Extremadurako produktuen erakusketan eta salmentan oinarrituko direla jakinarazi dute. Tolosako Triangulo plazan lekutuko dira jardunaldiok aipaturiko hiru egunetan.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))

Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411

- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitz. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurrarrendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

AITZPEA GOENAGA ▶ AKTOREA ETA ZUZENDARIA

«Ordu eta erdi ezin hobeto igaroarazten dizun antzezlan da»

Donostiarrak zuzenduta gaur ekingo dio birari, 20:30ean, Leidor aretoan, Glu Glu produkzio etxearen '¡Ama, quiero ser lehendakari!' antzellanak

IÑIGO TERRADILLOS

Glu Glu produkzio-etehearen antzezlan berriaren bira gaur hasiko da Leidor aretoan, 20:30ean. ¡Ama, quiero ser lehendakari! izenburuarekin, Loli Astoreka, Ane Gabarain, Patxi Perez, Maribel Salas, Galdar Perez eta Mari Cruz Melgoia aktoreak taula gainean ikusteko aukera izango da, Aitzpea Goenagaren zuzendaritzapean. «Erakargarria eta disfrutatzen modukoa» dela azaldu digu donostiarrak.

Tolosan ekingo diozue gaur birari. Dena den, Burgeten ezagutzen dute jada.

Bai, hala da. Izan ere, Burgeten aurkezpena egin genuen pasa den larunbatean, eta oso ondo irten zen. Jendeak oso ondo erantzun zuen, antzezlan osoa adi jarraitu zuten, eta gustura geratu ziren, beraz, pozik gaude.

Badakizue orduan antzezlan berri hau jendeari gustatu zaioala.

Bi hilabete generamatzen taldeko kideak bakarrik lanean, inork begiratu gabe, eta ez genekien jendeari gustatuko zitzaien ala ez, non egingo zuten barre... Horregatik, Burgeteko saioan oso urduri geunden guztiak, bereziki aktoreak baina emaitza oso ona izan zen. Tolosara lasaia goaz, funtzionatu duela ikusi baitugu, aktoreentzat, nolabait, afirmazio modukoa izan da, segurtasun handiagoarekin doaz.

Zein da antzezlaneko istorioa, labur-labur esanda.

Euskal Herriko familia bat astero bezala amaren inguruan elkartzen da. Egunkarian irakurriko duten iragarki bat dela



HITZA

eta, astindua jasango du bilera arrunt horrek; lehendakari berri baten bila dabilzala dio, eta denek lehendakari izateko gaitasunak erakutsi nahiko dituzte. Lehendabizi zein alderditan parte hartu nahi duten erabaki behar dute, batzuk irudiarekiko izango dute kezka nagusia, beste batzuk jendearen aurre-

an hitz egin beharrerakin, edota familiak nola hartu berria... Amak izango du saltsarik bixiena, ama batentzat ez baita zilegi bat aukeratu behar izatea, eta zer esanik ez lehendakari nor izango den aukeratzeari.

Nola sortu zen ideia?

Politikaren munduari buruz

antzezlan egiteko eskatu zitaten, eta gainera txuria izan behar zuen. Politikoa eta txuria? Harrituta geratu nintzen. Hala, alderdi guztietako politikariek elkarriketa ugari egin ditut. Harri eta zur utzi naute, bost axola zitzaielako zer kontatu. Ikaragarriak kontatu dizkide! Ea lehendakari bezala ikusten zuten euren burua galdetzen nien nik zeharka halako batean, eta ezetz esaten zidaten gehienek, galdera egitean izaten zuten erreakzioa oso xelebrea izaten zen. Boteak asko erakartzen duela atera dut elkarriketatik.

Nolako obra dela esango zenuke?

Egoera inozoekin, arraroekin, espero ez duzunekin osatua dago. Umorea, berriz, leuna da, samurra, erraz sartzen dena, baina ez da ohikoa, ezin esan erraza denik, eta horregatik da apustu zaila. Gaiari dagokionez, oso erakargarria da, eta erritmoa bizia. Ordu eta erdi ondo baino hobeto igaroarazten dizun antzezlan da. Nik ikusten dudana guztietan asko disfrutatzen dut. Aktoreen lan handia azpimarratzen dut.

Azken aldian ez duzu jendearen aurrean lan egiten.

Denboraldiak dira. Azken urtean atzean lan egitea egokitu zait, baina ez diot inoiz utzi aktore bezala lan egiteari. Ahal dudanean, gainera, jarraituko dut berritoki ere.

KONTSU TABERNA
Asteburuko menua
Plater konbinatuak
Astearteak itxita
Oresa • 943 68 21 54

iragarki laburrak ▶

LANA

Iturgina. Iturgin lanetarako pertsona bat behar da.
656 41 68 08.

Abeslaria. Erromeri eta ezkontza taldeak abeslaria behar du. 658 70 11 96.


SALGAI

Autoa. Ford Scort 1.800 TD. SS-BC. 943 65 52 88.

Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995koa. 153.000 km. 18ko ilantak. 14.000 euro. 943 65 41 43.

BESTEAK

Txakurkumeak. Txakurkumeak oparitzen dira. Deitu 618 25 49 71 zenbakira.



Salgai (Tolosa) Larramendi kalean, Voith-en parean. pisu polita. 60m2.

Salgai (Berastegi)

Familia bakarreko etxebizitza 4.000m2-ko lursailarekin.

Bista oso politak.

Salgai (Tolosa) Iurrarrendi auzoan etxe zoragarria. Garage bikoitza eta itxia. Lorategia ere badu.

Salgai (Tolosa)

Aparta. Gernikako arbolan. 93m2.

Sartzeko prest. Garajea aukeran.

Salgai (Tolosa) Alde zaharrean 75m2-ko pisu polita eraberritua.

Salgai (Tolosa)

Alde zaharrean 50m2. Atiko apaina estreinatzeko reformatu osten.

Gazteentzako egokia. 191.903 euro.

Salgai (Aitaun) San Martin. 60m2.

Estreinatzeko guztiz eraberritu osten.

Gazteentzako egokia. 164.677 euro.

943 69 71 96 • 675 705 268

Korreo Kalea 50

TOLOSALDEKO HITZAK lan poltsa osatzeko banatzaile/buzoneatzaileak behar ditu Tolosaldean.

LAN-BALDINTZAK :

- Egutegian 4 ordu.
- Goizeko 9:00etatik 13:00etara.
- Astean sei egun. Asteartetik igandera.

Interesatuak 943 30 35 33 telefonora deitu lehenbait lehen.

